

ATARIKOA

Joxe Azurmendi

Filosofiaren historia ez da filosofiaren historia soilik: filosofia, Hegelek *Filosofiaren Historiari buruzko Ikasgaietan* dioen legez, pentsamenduaren gaineko pentsaketa baldin bada, filosofiaren historia pentsamenduaren historia da; eta gizabere razionala bera pentsamendu den neurrian, filosofiaren historia gizon-emakumearen historia da nolabait –konkretuki, eskuartean duzun liburu honen kasuan, mendebaleko gizakiaren historia intelektuala–.

Gizon-emakumeak libre-libre pentsatzen du eta edotariko pentsabideak ibiltzen ditu, bizi eta lantokiak moldatuz, mitoak asmatuz, artea landuz, politika eraikiz, zientzia jorratuz. Sistemara ekarrita, espresabide hauetako guztietako pentsatzearen pentsatzea edo filosofia, dio Hegelek, hiru gai handiotan biltzen da guztia: Jainkoa, Natura eta Espiritua. Hiru gai edo alorrok Kantek Baldingabekoa (“Jainkoa”), Mundua eta Arima edo Subjektua, izenda zitzakeen, berarentzat pentsamenduaren alorrak baino gehiago mugak direnak, pentsamenduaren horizonteak. Eta Descartesek, bere metodoaren arabera, Izaki Betegina (“Jainkoa”), Hedadura eta Pentsamendua. Filosofia handi bakoitzak, filosofiaren kontzeptua bera ere pixka bat, bere-berea izaten dizu, eta hortik ñabardurak filosofiaren objektua zein den erabakitzekean. Hala ere, funtsezko adostasun baten barruan dihardute denek, ikusten denez. Greko batek hiru barrutiok Fisika, Metafisika eta Politika/Etika iritsi ahal izango zituen ausaz. Gaur bertan, *The Oxford Companion to Philosophy*rentzat adibidez (1995), filosofiaren hiru objektuak, munduaren natura orokorra (metafisika), ezagutzaren teoria (epistemologia) eta giza jokera bizitzan (etika edo balioen teoria) dira, beti Triada sistemaren ohiturari jarraituz, osotasunaren sinbolo indogermaniarra hori. Hiru objektu horietan pentsamenduaren objektu oro laburbiltzen da. Esan gura baita, gizon-emakumearen pentsamenduari interesatzen zaion dena interesatzen zaiola filosofiari.

Filosofia, hortaz, ez da urruneko pentsamendu ilargitarren bat; aitzitik, gizakiaren eguneroko esperientziaren eta mendez mendeko historiaren menpeko da, bigarren momentuko gogoeta edo hausnarketa gisa beti ere: pentsamenduaren pentsatzea. Mundu guztiak badauka naturalki pentsamenduren bat inguruko munduaz, ohiko arrunta edo zientifikoagoa. Mundu guztiak dauka pentsamendu natural bat gizartean

nola jokatu behar den prestuki eta nola ez. Eta mundu guztiak dauka pentsamenduren bat –ziurtasuna, zalantzak– bere pentsamenduen egokitasunari buruz. Filosofia pentsamendu horietatik bizi da, horietatik hartzen du bere materiala, berak horien gainean pentsatzen du (gainaren adiera bietan). Pentsamendu natural hori aldatuz doa historian informazio berriekin, gorabehera historikoekin, aurkikuntza zientifikoekin, gerrekin, etab.; etapa horien pentsatzeak itxuratzen ditu filosofiaren historiako aro handiak: filosofia presokratikoa, filosofia greko klasikoa, Erdi Arokoa, modernoa... Filosofia hauek, gero, atzera eragina dute jendeen eta aroen pentsamenduan munduaz, ezagutzaren oinarriez eta politikaz edo etikaz, horrela pentsamenduaren munduko maila eta alorren artean denak dena egiten ari delarik.

Filosofia hontzarekin errepresentatu ohi da. Izan ere, historiako gertakarien eta pentsamenduko alor ezberdinen arteko elkarren egin-eragin prozesuan, filosofiari, aldiari, ilunabarrean hegaldatzen den hontzaren rola tokatzen bide zaio, hots, burutzerara doan aroko pentsamenduaren pentsatzea. Filosofia, horrela, aroak gaztetako oldarrean naturalki pentsatu eta eginaren ondorenean etortzen da beti: denborak bere burua pentsatzen du han. Aroaren pentsamendu naturala eta ekintza izan dena hausnartzuz, berak ixten du aro burutua, eta, iraganaren gain argi egitean, aro berriaren irekiera argitzen du.

Hartara, orain, aroaren kontzientzia bezala, filosofiak, bere historia ere filosofikoki azalduz –filosofiak berak lehen zer pentsatu zuen pentsatuz– agian argitu ahal izango liguke, gu nola etorri garen gaurko, esan dezagun, “filosofiagabetasunera”. Aristotelek haren aurreko filosofo guztiak bere filosofiarentzako prestalan gisa interpretatu ditu. Kanten filosofian esplikazioa barne-bildua dago, zergatik haren aurreko filosofia guztiak ezin izan zuten egiazki filosofiak izan, dogmatismoa eta eskeptizismoaren artean zimbili-zanbulukatuzera kondenatuak. Hegelek, aitzitik, aurretiko denak salbatu ahal ditu, denak “gaindituz”, hain zuzen. Filosofia bakoitza bere iraganeko filosofien gordailua da. Eta gu zer gara, non gaude? Garai batean filosofiak eta zientziak (“sofiak”) esanahi beretsua zuten. Gero zientzia berezituak filosofiatik banatuz joan dira, eta filosofiak aspaldi galdua du “zientzien erreginarean” koroa. Bestetik, historian miresten ditugun horiek bezalako filosofia handi edo sistema biribilik orain ez da ikusten. Filosofia denboraren bere burua pentsatzea baldin bada, zentzurik zabalenean, zein da orainaren kokapena, bilakaera, arrazoa, denboraren joairan?

Jada ez zientzien erregina, baina ilunean ere ikusi egin gura duen hontz begihandia izan daiteke guretzat ere filosofia, sofia izan ustetik berriro jakitearen maitasuna izatera itzulia. Orainaldi honi begira, hala dio Russellek, *History of Western Philosophy*, Sarreran, zalantza beteriko gure garaiotan, oinarri gabeko ziurtasunak eta itxaropenak eskaintzen dituen teologia edo erlijioaren aldean, orokorki, “segurtasun hori gabe bizitzen eta, hala ere, ezbaiek paralizatua ez sentitzen irakastea da agian filosofiak, hori estudiatzen duenari, gure egunotan egin diezaiokeen onurarik handiena”. Ziurtasun eta balio absolutuak eskaintzen edo exijitzen dituen ororen aurka, filosofiak zalantzarekin

bizitzen irakats diezaguke. Egiaren bilaketan pozten, haren jabetasunaren begitazioan gabe. Zalantzatan eta “erlatibismoan” ibiltzea ez baita orainaldiaren gaixotasun bat; denboraren agindu burdinazkoa da.

Filosofia horregatik da interesgarria, kasik beharrezkoa, gizon-emakumearen ia zainnari garairi edo arlori buruz orientatzeko. Aldian aldiko espirituaren agerketen sintesia da. Aroaren ispilua. Handik hara, bada, eskuetan duzun Filosofiaren Historia honek, filosofiako ikasle eta irakasleentzat ezezik, historia edo literaturzalearentzat balio gura luke orobat, edo, eskolatik kanpora, jakin-minarentzat politikari buruz, edo mendebaleko kulturaren bilakaerari buruz, eta edozein interesaturentzat Grezian edo modernitatean edo aro garaikideko korronteetan, zer esanik ez arlo espezifikoari filosofikotzat jotzen direnetan informazioa bilatzen duenarentzat, etika, metafisika, edo gogamenaren teoria bezalakoak.

Esakune biribil sonatuak dioen moduan, filosofiaren historian arrazoimen pentsaketariaren heroien galeria ikuskatzen da. Heroi bitxiaren galeria bitxia hauxe, pentsatuko luke irakurleak: denak denen arerioak, dirudienez! Nola eraiki filosofia horrela? Belanez belaun jakitatea gehituz eta metatuz aurreratzen da eta jasotzen da ezagutzaren beste arloetan zientzia. Filosofiaren historian, alderantziz, filosofo eta filosofia bakoitzaren aurrekoaren aurka dator; zeregin nagusia batek eraiki duena hurrengoak eraitea dela ematen du.

Hala ere, filosofiaren hemengo historia honek ahalegin berezia egin dizu erakusteko, filosofia filosofia dela, eta ez filosofoak eta filosofiak bakarrik; hots, filosofia bat bakarraren historia dela horren historia jarraitua. Kontrastea bai, baina etenik ez dagoela mitotik arrazoimenera, ezpada segida eta eraldapena dela mito arkaikoaren kontaketa razionalizatutik (Hesiodo, Homero) munduaren argitzapen filosofiko argudiatuta doana. Platon kritikatu dagoela, baina ez ukatua, Aristotelerengan, baizik ere oso hurbildik jarraitua. Filosofia greko jentila baieztatua dagoela Erdi Aroko pentsamendu kristauan. Mantxako Kanaleko gesala, pentsamendu filosofiko moderno guztia bi bloke elkartezinetan partitzen duen muga egiteko ez dela gesal aski, eta enpiristak eta razionalistak, edo orainago analitikoak eta kontinentalak, ez direla bi fronte etsai, bi solaskide lagun baizik. Hala berean, Rousseuren zordun dela Kant, Ilustrazioaren lorea Erromantizismoa, *et ita porro*.

Hain zuzen, haren historian nabaria da filosofia beti ekipoa bezala egin izan dela, elkarrekin solasean eta ezbaian, bakoitzak uko egin gabe horregatik pentsatzailearen bakardade jakinekoari. Hala ikusten dugu Miletoko hirukotean filosofia taldetxoan sortzen –Tales, Anaximandro, Anaximene–, lagundietan hedatzen geroxeago Krotonako pitagorikoan, Eleako metafisikoen eskoletan, nagusitzen Atenasen. Ez da kasualitatea izan, Sokratesek eta harekin Akademiako Maisuak, gogoeta filosofikoaren garapiderako tresna egokiena jenero dialogikoan ikusi badute. Aristoteleren filosofia etengabeko dialogo bat da Platonekin eta Platonen aurka. Eta Platonekin eta Aristotelerekin dialogoa besterik ez Erdi Aroko filosofia arabiar zein kristau guztia. Moder-

nitatearen hastapenetan erabakigarria izan da Mersenne abadearen inguruko zirkulua: Descartes, Gassendi, Arnauld, Pascal, Hobbes, bata bestea akuilatzen gutunezko elkar trukean. Eta horien eztabaiden jarraipentzat jo daitezke Spinoza eta Leibniz alde batetik, bestetik Locke, Berkeley eta Hume, Lehen Modernitatea. Kantekin, Bigarren Modernitatean, filosofia Unibertsitate-sisteman integratua ageri da, itxuraz katedradun bakartiaren zeregin bilakatua. Haatik, haren inguruan ere berehalaxe sumatzen dugu filosofo mulko bat eztabaida zalapartatsuan, filosofia aleman klasiko guztia horixe baita. Gaur egungo filosofiagintzak ere gehiago begitatzten du departamenduen zeregin (Oxford, Cambridge, Harvard...), heroi bakanen arrazoimen pentsaketariarena baino.

Euskararen herrian heroi filosofikoak deslai ez dira falta izan, batez ere azkeneko mendean: Urraburu neoeskolastikoa, Unamuno antieskolastikoa, Garcia Bacca, Imaz, Zubiri, Zaragueta, Alkorta... Horietako gehienak, ezin esan liteke, "Euskal Herriaren denbora bere buruaren pentsaketan" izan direnik; nahiago izan dute beste denbora (edo denboragabetasun) batzuetan ibili. Zilegi dugu, menturaz, uste izatea, gure denbora bere buruaren pentsaketan Pello Errotarengan-eta jardun izan dela?... Nolanahidena, pasa beharrean geundeke gu ere honezkero hausnarketa ahozkotik idatzizko baldintzetako gogoetara (E. A. Havelock). Idatzizko filosofiagintza horretan euskaraz orain arte gutxi-gutxi batzuk baino ez dira sartu izan: Jusef Egiategi, adibidez, behiala; geroago Orixe eta Salaberry zerbait; Gotzon Garate, gure egunotan. Diktadura frankistaren ostean zerbait gehiago aurkitzen dugu, batez ere Unibertsitatearen inguruan: UZEIko Filosofia Hiztegia eta ikasliburuak, UEU eta EHUko argitalpenak, tesiak; baina baita ere filosofiaren historiako hainbat maisuren itzulpenak (Klasikoak Sailean bereziki), edo Jakin Irakurgaiak liburutxoak, eta akademiatik kanpoko autore bakanen batzuk, hala nola Gil Bera, etab. Oraindik lortu ez dena, elkarrizketa eta eztabaida komunitate bat osatzea da, gogoeta filosofiko autonomo bati bizia emango diona. Iruditzen zait hori, gure baldintzetan, irakaskuntza unibertsitario eta ez unibertsitarioko filosofiazaleak kolaborazio sistematiko moduren batean bilduz izango litzatekeela bideragarriena, elkarlan hori antolatzea noizpait lortzen bada. Ereti bat bide horretatik abiatzeko *Filosofiaren Historia* honek eskaintzen du apika. A. Arrietak eta I. Uribarrik lehen taldetxo bat elkarlanean biltzea lortu dute, hasteko.